



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2017KO URTARRILAREN 12KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2017.01.12

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Azkeneko aktaren onespena.

2.-Lorenzo Tellechea Sansiñena jauna: oihan probetxamendu eskaera.

3.-Herritarren zerbitzu pertsonal edo garraiozkoa edo auzolana arautzen duen ordenantza: behin betiko onespena.

4.-Aroztegiako proiektuari buruzko mozioa.

5.-Gure esku dago ekimenari babesle emateko onespena.

6.-Osasuna Fundazioa: babeslea izateko eskaera.

7.-EPE-Euskadiko Polio Elkarte: babesle emateko eskaera.

8.-Arantzako Guraso Elkarte: diru laguntza eskaera.

9.-Udaleko langileen 2017ko lan egutegia.

10.-Kanposantuko lurperatze lanei buruz.

11.-Alkatearen ebazpenak.

12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2016ko abenduaren 5ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-LORENZO TELLECHEA SANSIÑENA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Lorenzo Tellechea Sansiñena jaunak, Simonen Borda alderdian, pinu eta haritz amerikanoen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa eta entresaka, hurrenez hurren, 5. poligonoko 57. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Lorenzo Tellechea Sansiñena jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-HERRITARREN ZERBITZU PERTSONAL EDO GARRAIOZKOA EDO AUZOLANA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA: BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2016ko urriaren 10ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onartzea herritarren zerbitzu pertsonala eta garraiozkoa edo auzolana arautzen duen ordenantza.

Ordenantza jendaurrean jarri da (2016ko azaroaren 28ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta bandoak jarri) eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako ordenantza behin betikoz onartzea.

2) Ordenantzaren kopia Nafarroako Gobernura igortzea.

4.-ARROZTEGIAKO PROIEKTUARI BURUZKO MOZIOA.

Palacio de Arozteguia S.L.k Baztango Lekarozko herrian 228 etxebizitzako urbanizazioa, hotela eta golfa egin nahi ditu. 2016ko ekainaren 5ean Baztango Batzar Nagusiak deituta herri-galdeketa egin zen eta herritarrek proiektuari EZ erran zioten. Herrien etorkizuna baldintzatuko duten proiektuei buruz herritarrek beren iritzia agertzeko eskubidea dute eta administrazio publikoak herritarren errana errespetatzeko betebeharra. Ildo horretan, gauzak horrela ,aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Arantzako Udalak herrien etorkizuna baldintzatuko duten proiektuei buruz herritarrek erabakitzeko duten eskubidea aldarrikatzen du eta, horregatik, Baztango Batzar Nagusiak antolatutako galdeketa baliok hartzen du.

2) Nafarroako Gobernuari baztandarrek galdeketa errandakoa betetzeko eskatzen dio.

5.-GURE ESKU DAGO EKIMENARI BABESA EMATEKO ONESPENA.

Irakurri da Gure Esku Dago-k aurkeztutako idatzia:

“Udaberrian Bortziritan Gure Esku Dago-k herri galdeketa bat deitzeko asmoa du, herri gisa izan nahiko genukeenaren inguruan.

Hainbat ekimenen ondotik (Lesakako lip dub-a, giza katea, zezen plaza eta estadioetakoak...) herri galdeketa fasean sartu gara. Goierrik abiatutako bidea 36 herri osatu dute, eta udaberriko 146 izanen gara galdeketa egin dugun herriak. Tartean Nafarroan Sakana, Larraun, Leitzaldea eta Bortziritakoak.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Baina bidea hasi baino ez dugu egin: elkartearen legezkatzea, sinadura bilketa (zentsoareen %10a lortuz), agerraldiak, herri aktibazioa, galdeketako prestaketak, galdeketa eguna,... Beraz, zenbat eta partehartze eta babes zabal eta anitzagoa izan, orduan eta arrakastatsuagoa izanen da prozesua. Eta hor behar zaituztegu.

Hau dena AUZOLAN erraldoi bat izatea nahi dugu, bakoitzak ahal duen horretan, bere esparrutik ekarpenak eginez.

Norbanako nahiz herri taldeen partehartze zabala nahi dugu, bakoitzak ahal duen horretan, bere esparrutik ekarpenak eginez.

Norbanako nahiz herri taldeen partehartze zabala nahi dugu, hasieratik ideiak aportatuz denen artean zerbait handia egiteko: bortziritarroi gure herriaren etorkizunari buruz galdetzea.

Idatzi honen bidez, herri galdeketari babesa ematea eskatzen dizuegu, sinadura bilketarekin hasten garenean eragileen babesa azaltzeko.

Era berean, hemendik aitzinera eta galdeketa egunera arte harreman iraunkorra mantendu nahiko guke zuekin, zuen ekarpenak jaso eta gure ekimenean hedapenean laguntzeko”.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako idatzia onartu eta Gure Esku Dago-k egindako planteamenduari babesa ematea.

6.-OSASUNA FUNDAZIOA: BABESLEA IZATEKO ESKAERA.

Ikusirik Osasuna Fundazioak aurkeztutako idatzia, bertako kidea izateko proposamena eginez, urteko 150,00 euro ordainduz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Osasuna Fundazioari eskerrak ematea egindako gonbiteagatik.
- 2) Babeslea izateko proposamena ez onartzea, Udalak bertze lehentasunak dituelako.

7.-EPE-EUSKADIKO POLIO ELKARTEA: BABESA EMATEKO ESKAERA.

Ikusirik FEAPET eta EPE-Euskadiko Polio Elkarteak igorritako mozioa,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Euskal Gobernuak Osasun Departamentuari post-polio sindromea ORPHA 2492 kodigoan, berau, EERR lez kontsideratua egonik Euskal Gobernuak argitaratutako EERR katalogoan sar dezala eskatzen diogu

2) Espainiako Gobernuari post-polio sindromea, mintsu eta gaitasun ezaren eragile kontsidera dezala eskatzen diogu, era berean ezgaitasunen balorazio sistema/baremoan sartuaz.

3) Espainiako Gobernuari, abenduaren 4ko RDko 1.go artikulua 1851/2009 alda dezala eskatzen diogu. Bertan ezgaitasuna duten langileen erretiro edo jubilazioa erregulatzen da, eta erretiratzeko sasoiari, sendagile baten txostenak sostengatuz %45eko ezintasuna edukitzea, nahikoa izatea eskatzen da

4) Espainiako Gobernuari, moldaketa hauek Estaduko Administrazio Zibileko Funtzionarioei aplikatu diezaietela eskatzen diegu. Hauek, Clases Pasivas deituriko erregimenean, kokaturik daude.

8.-ARANTZAKO GURASO ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Arantzako Guraso Elkarteak aurkeztutako idatzia, 2017ko aurrekontuan partida bat izateko eskatuz Eguberrietako eta bestetako haurren ekitaldietako gastuen erdia ordaintzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako eskaera onartzea eta gastuen erdia Udalan gain hartzea.
- 2) Akordio hau Arantzako Guraso Elkarteari jakinaratzea.

9.-UDALEKO LANGILEEN 2017KO LAN EGUTEGIA.

Irakurri da 207/2016 Foru Agindua, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen 2017ko lan gutegia onesten duena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udal langileei horren berri ematea.

10.-KANPOSANTUKO LURPERATZE LANEI BURUZ.

Alkateak jakinarazi du gaur egun kanposantuko lurperatze lanak egiten duenak uzteko asmoa adierazi duela.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Bando bat zabaltzea herrian lan horiek egiteko interesa duenak izana emateko.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2016ko 161. ebazpenetik 173. ebazpena arte eta 2017ko 1. ebazpenetik 4. ebazpena arte.

12.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

